

Optimismoaren aldarrikapena

Naiara Garzia

Duela hamar bat egun Clara Obligado ezagutu nuen Donostiako liburu-denda batean egin zuen aurkezpenean. Madriletik iritsi berria zenez ezustean harrapatu zuen hemengo hezetasun eta udaberriko hotzak. Aulki altu batetik hitz egin zuen, poltsa hanken gainean zuela, marroi ilunez jantzita. “La muerte juega a los dados” izena du aurkeztu berri duen liburuak eta eleberri bat bera ere irakurri gabe zenbait hilabete eman ondoren, asteburu batean irakurri dut: aristokrazia argentinarra,

1930eko Paris, diktadura argentinarraren biktima bat, aberatsen bizitzaren testigu den Parisko etxea, urte batzuk geroago nazietatik ihesi dabilen pertsona baten gordeleku izanen dena... eta, aldi berean, suspense puntua ematen dion aristokrata baten erailketa. Pertsonaia eta egoera asko azaltzen dira eleberri eta ipuinaren artean dagoen liburu honetan, eta horietariko asko existitu zirela jakiteak beste garrantzi bat ematen dio.

Optimismoaren inguruan mintzatu zen, besteak beste, Obligado: «Egoerarik

makurrenean ere, diktadura batean, lurrikara baten aurrean... beti bada askatasunerako tarte txiki bat eta hor optimismoa norberaren hautua da». Eta gero, barrez: «Jorge Bucayren antza hartzen ari banaiz abisa iezadazue...». Hitz horiek hunkigarriak izan ziren, gure espazio pribatua ez-kortasunez beteta dagoen garai honetan, ezinbestekoak.

1976an iritsi zen Espainiara diktadura argentinaretik ihesi. Bere bikotea zena erail berria zuten eta 9 kiloko maleta zuen eskuan. Besterik ez. •

Hausnar

Antton Izagirre

Hausnar egiten dute abere belar-jaleek, ordutan sartu eta sartu, beste zereginik gabe jardun, ondoren berriro ahoan murtxikatu eta digeritu behar dutenean. Elikagaia nolakoa digestio sistema halakoa. Eraldaketa genetikorik ezean animalia hausnartzaileek beren sistema garatzen darraite.

Giza abereoi ere sistema politikoa animalia hausnartzaileen modura ezarria digute, gutxienez lau urtez behin, hausnar egiteko abagunea. Abere arima hori egokia iruditzen zaie gure agintariei hauteskunde egunaren bezperetan. Haiekin alderatuta adierazi nahi digute hauteskunde kanpainako hamabost egunetan

jaso ditugun mezuak eta edukiak, promesak eta egitasmoak zail gertatzen zaizkigula bat-batean barneratzeko eta digeritzeko. Ordu luzeak beharko ditugula abereen modura lasai ederrean etzateko bazterren batean entzun eta esandakoak banan-banan aletzeko, hautestontzietan egingo dugun hautua zentzuzkoena izan dadin.

Ez dakigu horren beharrik inoiz izan dugun, baina, azkenaldi honetakoa ikusita, abereen kasuan ez bezala, giza arima genetikoki aldatzen ari den susmoa dugu, eta behar fisiologikoa izan beharko lukeena erabat desgaitua digutela sumatzen dugu.

Gaur, ofizialki “hausnarketa eguna” izendatutako honetan, nork aurkitu leza-ke zer eta zertaz hausnartu? Nork du zailantzarik? Alderdi politikoei, komunikabideei, gure lana beharko zukeena, hots, hausnarketa, jadanik egina eta ongi murtxikatua emana digute. Jakin-gosea beharko zukeena ez digute asebate, kolpetik ekidin digute; egia, egia bakarra dagoeneko ahi bihurturik ahoratu digute, digestio beharrik ez, zuzen-zuzenean odolera. Jadanik badakigu besteena arras okerra eta aldrebesa dela, kaltegarria eta hutsaren hurrengoa, ez dugula hausnartu beharrik. Azken batean, ez dugula beste zereginik, geureari botoa eman besterik. •